Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzeko igorri zuten, eta 2001eko azaroaren 30ekoan (137. zenbakia) argitaratu zen. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu utzitako 15 eguneko epean.

Telekomunikazioen Antolamenduaren Legeko (abenduaren 18ko 31/1987 Legea) 1.2 artikuluan xedatutakoak ematen dio onura publikoaren eta gizarte interesaren izaera aztertzen ari garenari. Izan ere, artikulu horretan honakoa xedatzen da: «telekomunikazioko behar publikoak nahiz pribatuak betetzea da telekomunikazio zerbitzu zibilen xedea. Horretarako, onartutako helburuekin bat datozen teknika eta kalitate ezaugarriak dituzten baliabideen multzo homogeneoa erabiliko da».

Telefonia mugikorraren beraren ezaugarriek landa ingurunean instalatzera behartzen dute. Izan ere, telefonia mugikorrak antena sarea eskatzen du lurralde osoan zehar, behar den estaldura eskaintzeko.

Horregatik guztiagatik, ditudan aginpideak erabiliz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Lurraren Araubidearen eta Hiri Antolamenduaren (1976ko Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu berritua) Legeko 85-2 artikuluan onartutako baimena ematea, Mañuetako udalerriko Medianillosen, lur hiritarrezintzat eta akuiferoen zona babestutzat sailkatutako lurzoruan, oinarrizko estazioa instalatzeko, Telefónica Móviles S.A. baltzuak sustatutako espedientearen arabera.

Bigarrena.- Baimen hori gorabehera, udal baimena nahitaez lortu behar da proiektua gauzatu baino lehen, eta ez du aldez aurretik emango dagokion udal erabakiaren edukia.

Hirugarrena.- Aldez aurretik baimena eman izanak ez du administrazio-bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan galarazten ere. Ondorioz, haren kontra ezin da inolako errekurtsorik ezarri. Eta ezartzekotan, Mañuetako Udalak, dagokion administrazio ekintza emateko organo aginpidedun den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko emandako ebazpenaren kontra baino ezin da ezarri.

Hori guztia argitara ematen da guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 31n.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, hecho que tuvo lugar en el número 137 de 30 de noviembre de 2001, sin que durante el plazo de 15 días habilitado se haya presentado alegación alguna.

La utilidad pública o interés social en el supuesto examinado viene dado por lo dispuesto en el artículo 1.2 de la Ley 31/1987, de 18 de diciembre, de Ordenación de las Telecomunicaciones, que establece que “los servicios civiles de telecomunicación tienen por objeto la satisfacción de las necesidades públicas y privadas de telecomunicación mediante un conjunto homogéneo de medios con unas características técnicas y de calidad adecuadas a los objetivos fijados”.

La necesidad del emplazamiento en el medio rural viene determinada por las características propias de la telefonía móvil que precisa de una red de antenas a lo largo del territorio para ofrecer la cobertura adecuada.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Otorgar la autorización prevista en el artículo 85-2º del Texto Refundido de la Ley sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana de 1976 para la instalación de una estación base en Medianillos, municipio de Baños de Ebro, en terreno clasificado como suelo no urbanizable y calificado como zona de protección de acuíferos, según expediente promovido por Telefónica Móviles, S.A.

Segundo.- La presente autorización no exime de la obligación de obtener la preceptiva licencia municipal con carácter previo a la ejecución del proyecto, ni prejuzga el contenido del acuerdo municipal correspondiente.

Tercero.- La autorización previa no pone fin a la vía administrativa ni impide su continuación y, consecuentemente, no resulta susceptible de recurso alguno, que únicamente podrá dirigirse contra la Resolución de otorgamiento o denegación de la licencia por parte del Ayuntamiento de Baños de Ebro, en calidad de Órgano competente para dictar el acto administrativo que proceda.”

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, 31 de diciembre de 2001.– El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**87**

**1343/2001 FORU AGINDUA, abenduaren 28koa, Burgeluko udalerriko Hiri Antolamenduko Arauak berrikusteko espedienteari buruzkoa.**

«Burgeluko Hiri Antolamenduko Arauak berrikusteko espedientea ikusi dut.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Burgeluko Udalaren ofizio bat jaso genuen 2001eko uztailaren 5ean, 12.475 sarrerako erregistro zenbakiarekin. Ofizio horretan honako hau jakinarazi dute: udaleko Hiri Antolamenduko Arauak behin-behinekoz onartu direla eta espedientea igorri digutela, hala badagokio, behin betiko onartu ahal izateko.

Bigarrena.- Udalak, 2000ko ekainaren 2an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu zituen: behin-behinekoz arau horiek onartzea eta hilabetez jendaurrean jartzea; eta, horretarako, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (70. zenbakia, 2000ko ekainaren 21ekoa), eta Periódico de Álava (2000ko ekainaren 11koa) eta El Correo (2000ko ekainaren 9koa) egunkarietan argitaratu zen iragarkia.

Hirugarrena.- Jendaurrean egondako epean hamabost alegazio aurkeztu ziren. Idazle taldeak txostenetan jarri eta gero, Korporazioak guztiak erabaki zituen, eta berriz beste behin-behineko onarpen bat ematea erabaki zuen, espedientean sartutako aldaketak funtsezkoak zirela ikusita.

Laugarrena.- – Udalak, 2001eko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu zituen: behin-behinekoz Hiri Antolamenduko Arauak onartzea (espedientean funtsezko aldaketak sartu eta gero), espedientea beste hilabetez jendaurrean jartzea; eta iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**87**

**ORDEN FORAL 1343/2001, de 28 de diciembre, en relación con el expediente de revisión de las Normas Subsidiarias del municipio de Elburgo.**

“Visto el expediente de revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 5 de julio de 2001 y número de registro de entrada 12.475 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Elburgo, mediante el cual se comunicaba la aprobación provisional de las Normas Subsidiarias de Planeamiento municipal y la remisión del expediente con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva, si procediese.

Segundo.- En la sesión plenaria del día 2 de junio de 2000, el Ayuntamiento acordó aprobar inicialmente las citadas Normas así como someterlas a información pública por el plazo de un mes, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 70 del miércoles 21 de junio de 2000, en el “Periódico de Álava” del 11 de junio de 2000 y en “El Correo” del 9 del mismo mes.

Tercero.- Dentro del plazo de exposición al público se presentaron quince alegaciones, que tras ser informadas por el equipo redactor, fueron resueltas por la Corporación, acordando ésta, teniendo en cuenta el carácter sustancial de las modificaciones introducidas en el expediente retrotraerlo a una nueva Aprobación Inicial.

Cuarto. – En la sesión plenaria de 20 de marzo de 2001, el Ayuntamiento acordó aprobar inicialmente las Normas Subsidiarias de planeamiento (una vez introducidas en el expediente las modificaciones de carácter sustancial), así como someterlas a un nuevo período de información pública por el plazo de un mes, haciendose efectiva

(44. zenbakia, 2001eko apirilaren 20koa, ostirala) eta Periódico de Álava (2001eko apirilaren 22koa) egunkarian argitaratzea.

Laugarrena.- Jendaurrean egondako epean hogei alegazio aurkeztu ziren. Idazle taldeak txostenetan jarri eta gero, 2001eko ekainaren 13an egindako bilkuran, Korporazioak guztiak erabaki zituen, eta berriz beste behin-behineko onarpen bat ematea erabaki.

Bosgarrena.- Martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuko (Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen hirigintza arloko zerbitzuak Arabari transferitzeari buruzkoa) eranskineko a) idatz zatiko hirugarren puntuan xedatutakoarekin bat, espedientearen txostena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, urriaren 18ko 5/2001 bilkuran.

Seigarrena.- Berebat, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan arautūtakoari jarraikiz, espediente horri buruzko txostena egin zuen Arabako Hirigintza Batzordeak, abenduaren 21eko 14/2001 bilkuran.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak honela balioztatu zuen Burgeluko Plangintzako Hiri Antolamenduko Arauei buruzko espedientea, antolamendua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku duten gaiei dagokienez:

- Lurralde Antolamenduko tresnetara egokitzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko jarraibideak.

. Espedientearen aldeko txostena ematea bizitoki kopuruari dagokionez. Izan ere, eskaintza (188 etxebizitza berri) lurralde antolamenduko gida lerroak (DOT) kontuan hartuta lortutako zifrara egokitzen da.

. Lur hiritarrezinarentzat definitutako erabileren araubidearen kontrako txostena ematea. Kontuan hartu beharko da ondoren azaltzen dena:

Dokumentuak PR zonari (ur-isurien eta bilguneen zona babestuak) buruzko idatz zatiaren idazkera aldatu behar du. Izan ere, proposatutako zatien segmentazioa eta ur-isurien identifikazioa ez datoz bat Burgeluko udalerria benetan zeharkatzen duten urtegiekin, ibaiekin, errekekin eta ur-isuriekin.

Ustiapenari dagokionez (7. zonan onar daitezkeen erabilera zerrenda, Araudiko 34., 73. eta 205. artikuluak), espedienteak kontuan hartu beharko du berriz baimena, edota ustiapen jarduerak eragindako zonak eta etorkizunean horretarako erabil daitezkeenak mugatu beharko ditu.

Hiri hondakin solidoak kentzeari dagokionez (Araudiko 205. artikuluan azaltzen da), udal plangintzak kokagunerik egokiena zein den zehaztu behar du eta, hala badagokio, eragindako lurrak kalifikatu.

2. EAEko Ibaiertzak eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (mediterranear isurialdea).

EAEko Ibaiertzak eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (mediterranear isurialdea) abenduaren 28ko 455/99 Dekretuaren bidez behin betiko onartu eta gero, espedienteak plan horretako baldintza hauek bete beharko ditu:

Lur hiritarrezinean, Hiri Antolamenduko Arauak Lurralde Planera egokitu beharko dira, eta, horretarako, ur-isurien zona babestutzat kalifikatu:

- 50 m-ko koroa Añuako ureztatze urmaelaren inguruan.

- 30 m-ko zerrenda, Arganzubi ibaiaren ertzetan, udalerriko ibilbidean (Burgeluko ekialdean).

B. Ekonomia jardueretarako lurra kuantifikatzea.

Ekonomia jardueretarako lurraren kuantifikatzetik abiatuta, espedientearen aldeko txostena ematea. Izan ere, dokumentuaren arabera, hiritar ekonomia jarduerak ezartzeko lurrek behar duten gehieneko neurri proposamena, 12,89 hektarea, erabat koherentea da udal kategorizazioarekin eta AA.EE.ko lurren neurriekin, EHLABeko irizpideen arabera.

C. Kultura ondareari dagokionez.

1. Done Jakueren bideari lotutako elementuak «Arkitektura intereseko ondasun zerrendak» izeneko zerrendatik kanpo utziko dira, eta «Higiezinak» 2. paragrafoan sartuko, dagokion idatz zatian, hor

mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOLETÍN efecOFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 44 del viernes 20 de abril de 2001 y en El Periódico de Álava del día 22 de abril de 2001.

Cuarto.- Dentro del plazo de exposición al público se presentaron veinte alegaciones, que tras ser informadas por el equipo redactor, fueron resueltas por la Corporación, acordando ésta la Aprobación Provisional del expediente en sesión de fecha 13 de junio de 2001.

Quinto.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 5/2001, de fecha 18 de octubre.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 14/2001, de 21 de diciembre.

FUNDAMENTOS

Primero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco valora el expediente de Normas Subsidiarias de Planeamiento de Elburgo, en relación con las materias cuya ordenación es competencia de la Administración Autonómica en los siguientes términos:

- Adecuación a los Instrumentos de Ordenación Territorial.

Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

. Informar favorablemente el expediente desde la cuantificación residencial, puesto que la oferta efectuada (188 nuevas viviendas) se adecue a la cifra obtenido en base a los criterios de las D.O.T.

. Informar desfavorablemente el régimen de usos definido para el suelo no urbanizable, debiéndose reconsiderar según lo señalado a continuación:

El documento debe corregir la redacción dada al apartado relativo a la zona P.R., de protección de los cursos y masas de agua, al no corresponderse la segmentación de tramas propuesta, ni su identificación por cursos, con los embalses, ríos, arroyos, y escorrentías que realmente atraviesan el término municipal de Elburgo.

Respecto al uso extractivo (listado entre los usos admisibles en la zona 7 y referenciado en los artículos 34, 73 y 205 de la Normativa) el expediente deberá, o bien reconsiderar su permisividad, o bien delimitar las zonas afectadas por la actividad extractiva, así como las que en un futuro pudieran dedicarse a ésta.

En lo referente a la eliminación de residuos sólidos urbanos (se cita en el artículo 205 de la Normativa) el planeamiento municipal debiera delimitar en su caso el emplazamiento más idóneo, calificando los terrenos afectados.

2. Pan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertiente Mediterránea).

Habiéndose aprobado definitivamente el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV (Vertiente Mediterránea) mediante Decreto 455/99, de 28 de Diciembre, cabe señalar que el expediente deberá adaptarse a él en los siguientes términos:

En suelo no urbanizable las Normas Subsidiarias deberán adaptarse al Plan Territorial calificando como zona de protección de los cursos de agua:

- Una corona de 50 m. en torno a la balsa de riego de Añua.

- Una franja de 30 m. en las márgenes del río Arganzubi, en su recorrido por el término municipal (al Este de Elburgo).

B. Cuantificación de suelo para actividades económicas.

Informar favorablemente el expediente desde la cuantificación de suelo para actividades económicas por cuanto la propuesta de dimensionamiento máximo de los suelos para la implantación de actividades económicas de carácter urbano que realiza el documento, cifrada en 12,89 has., es coherente con la categorización del municipio y dimensionamiento de los suelos de AA.EE., según los criterios de la COTPV.

C. En materia de Patrimonio Cultural.

1. Se excluirán del listado “Relación de Bienes de Interés arquitectónico”, los elementos afectos al camino de Santiago, incorporándolos al apartado correspondiente del párrafo 2. “Inmuebles”, que

aipatzen baitira berariaz Done Jakueren bideari lotutako elementuak. «Katalogoa» izenburua duen 207. artikuluan urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretua aipatuko da. Dekretu horretan kultura ondasuntzat izendatzen da Done Jakueren bidea, eta monumentu kategoria ematen zaio.

2. Era berean, zerrenda horretatik kanpo utziko da «La Picota», eta «bestelako hiri elementuak» 3. paragrafora igaroko.

3. Hirigintzako dokumentuan kultura ondare inbentariatu gisa jaso behar da Burgeluko gune historikoko arkeologia zona eta mugak erabat egokitu behar dira izendatze horretara (I. eranskina), bai eta 7/90 Legeko 45.5. artikuluan ondasun horientzat onartutako babes jakinera ere.

4. Burgeluko ustezko arkeologia zonatzat izendatutako aztarnategiak eta arkeologia intereseko elementuak (II. eranskina) Hiri Antolamenduko Arauen dokumentuan sartu behar dira, 7/90 Legeko 49. artikuluak elementu horiei ematen dien babesarekin, eta bakoitzari dagozkion benetako mugak zein diren zehaztuta (II. eranskineko ebazpena, III. eranskineko planoak).

Bigarrena.- Lurzoruaren sailkapenari dagokionez.

- Lur hiritarra.

Espedienteak lur hiritartzat sailkatzen ditu, 6/98 Legeko 8. artikuluaren arabera horrelako izendapenik behar ez luketen eremuak. Izan ere, alde batetik ez dute legeak agindutako baldintzarik betetzen (ibilgailuentzako sarbidea, ur hornidura, ur hustubideak eta argindarrez hornitzea) eta bestetik, zona horiek oraingo hirigunearen perimetroan daude eta, beraz, hazkunde eremutzat hartzen dira. Beraz, hurrengo eremuetan berriz aztertu beharko da lur hiritarraren izendapena (hala ere, lur hiritargarritzat izenda daitezke, baldin eta sektore bakoitzak behar diren neurriak baditu, Plangintzako Araudian onartutako ekarpen erreserba egin ahal izateko):

Añua: 6. Jardun Unitatea (JU)

Argomaniz: 4. JU (17, 19, 48 lur sailak eta 174 lur sailaren zati bat)

Ixona: 1. JU

Hirugarrena.- Sistema orokorrei dagokienez.

Toki irekien eta parke publiko hiritarren sistema orokorrei dagokienez.

Toki irekien sistema orokorrari dagokionez, agindu estandarra (biztanle bakoitzeko 5 m2) nahitaez bete behar da. Hiri Antolamenduko Arauen dokumentuak horrelakorik jasotzen ez duenez, zona hori adierazi egin beharko da.

Bide komunikazioen sistema orokorrari dagokionez, badirudi nolabaiteko kontraesana dagoela jabari eta erabilera publikoko eremuaren (sistema orokorra) eta bide komunikazioen babes zonaren (lur hiritarrezinaren zona) artean. Beraz, sistema orokortzat izendatutako eremua zehaztasun osoz seinalatu beharko da. Bestalde, distantzia jakin batzuk onartu dira lur sailen eta eraikuntzen itxituretara eta, ondorioz, hainbat eraikuntza hiri antolamendutik kanpo gelditu da, eta ez bakarrik ongi kontserbatutako eraikuntzak, baita eraiki berri batzuk ere. Ez dirudi hori bidezkoa denik, horrek izan ditzakeen eragin mota guztiak kontuan hartuta.

Bestalde, artikulu berri bat (66.a) sartu da. Horrek Hiri Antolamenduko Arauen gaitasuna baliorik gabe utziko luke, dagokion errepide zerbitzuaren ekintzen edo behin-behineko baimenen alde; hala, arau hauetan jasotako erregulazioa debaluaturik geldituko litzateke. Dokumentu honetatik abiatuta erregulazio zehatza planteatzea izango litzateke egokiena, betiere Herrilan Zuzendaritzaren bermearekin.

Plangintza, Proiektu eta Obra Zerbitzuak emandako txostenaren arabera, espedientean honako puntuak sartu behar dira:

1. B-5 planoa zuzendu egin behar da. Horretarako, A-3110 errepidea (planoan A-3100 errepidea) behar bezala izendatu behar da. Era berean, A-3108 errepidearen izena aldatu egin behar da C-10 planoan, non N-3108 izena baitu.

2. Z-8 izeneko zona behar bezala izendatu behar da dokumentuan zehar izen hori aipatzen den aldioro. Kontuan hartu behar da, «Quilchano Zerbitzu Zona» behar duela, eta batzuetan «Zerbitzugune» gisa azaltzen dela. Ondorio horietarako, 2001eko artikuluan zehazten den plan berezia, lur hiritarrezineko zona bakoitzean baimendutako erabilera eta jarduerei buruzkoa, «Quilchano Zerbitzu Zonako Plan Berezia» da. Xehetasun horrek berealdiko garrantzia du, eremu

hace expresa referencia a los elementos afectos al camino. Se hará mención en el artículo 207 “Catálogo” al Decreto 14/2000 de 25 de enero por el que se califica como Bien Cultural con la categoría de monumento el Camino de Santiago.

2. De igual modo, se excluirá de dicho listado “La Picota”, trasladándolo al párrafo 3 “otros elementos urbanos”.

3. El documento urbanístico debe recoger la zona arqueológica del Casco Histórico de Elburgo, como bien cultural inventariado, modificando la delimitación hasta ajustarla a la declaración (Anexo I), así como ajustándose también a la protección exacta que la Ley 7/90 indica en el artículo 45.5 para estos bienes.

4. Los yacimientos y elementos de interés arqueológico declarados zonas de presunción arqueológica del municipio de Elburgo (Anexo II) deben ser incluidos en el documento de las Normas Subsidiarias, con la protección que les otorga el artículo 49 de la Ley 7/90, señalando las delimitaciones reales para cada uno de ellos (resolución del Anexo II, planos del Anexo III).

Segundo.- En relación con la clasificación del suelo.

- Suelo urbano.

El expediente clasifica como suelo urbano áreas que, de acuerdo con lo señalado en el artículo 8 de la Ley 6/98, no debieran ser consideradas como tales, puesto que carecen de los necesarios requisitos legales (acceso rodado, abastecimiento de aguas, evacuación de aguas y suministro de energía eléctrica) y además se trata de zonas perimetrales a los actuales núcleos de población, por lo que se conceptúan como áreas de crecimiento. Por lo tanto se deberá reconsiderar la clasificación como suelo urbano (pudiendo ser clasificadas como suelo urbanizable siempre y cuando cada sector tenga las dimensiones necesarias para permitir la reserva de las dotaciones previstas en el Reglamento de Planeamiento) en las siguientes áreas:

Añua: UE-6

Argómaniz: UE-4 (parcelas número 17, 19, 48 y parte de la 174)

Hijona: UE-1

Tercero.- En relación con los Sistemas Generales.

En cuanto al Sistema General de Espacios Libres-Parques urbanos públicos.

El documento de Normas Subsidiarias no prevé un área destinada a cumplir con el estandar de 5 m2/habitante para Sistema General de Espacios Libres, siendo esto preceptivo, se deberá por tanto señalar esta zona.

En cuanto al Sistema General de Comunicaciones Viarias, parece existir una cierta contradicción entre el área sujeta al Dominio y uso público (sistema general) y la zona de protección de las comunicaciones viarias (zona de suelo no urbanizable), se deberá señalar exactamente el área calificada como sistema general, por otro lado se plantean una serie de distancias a los cierres de parcela y de edificación, que dejarían en situación de fuera de ordenación urbanística a edificaciones no sólo en perfecto estado de conservación sino recientes en su construcción, lo cual no parece razonable atendiendo a las implicaciones de todo tipo que esta situación conlleva.

Por otra parte, se introduce un artículo (el 66) que anularía la capacidad de las NNSS en favor de actuaciones o permisos puntuales del Servicio correspondiente de Carreteras, quedando pues la regulación planteada en estas Normas devaluada. Sería lo correcto plasntear una regulación exacta desde este documento, avalada por la Dirección de Obras Públicas.

En base al informe emitido por el Servicio de Planificación Proyectos y Obras, se deberán introducir en el expediente los siguiente puntos:

1. Deberá corregirse el plano B-5, debiendo designarse correctamente la carretera A-3110, que en dicho plano aparece como A-3100. Asimismo, deberá corregirse la denominación de la carretera A-3108 en el plano C-10, en el cual aparece como N-3108.

2. Deberá mencionarse correctamente la zona denominada Z-8 cada vez que se hace referencia a la misma a lo largo de todo el documento, teniendo en cuenta que se trata de la “Zona de Servicios Quilchano”, y no de un “Área de Servicio” como se cita en ocasiones. A tales efectos, el plan especial a que se refiere el artículo 201, relativo a los usos y actividades autorizadas en cada zona del Suelo No Urbanizable, es el “Plan Especial Zona de Servicios Quilchano”.

horren ezaugarriak eta errepideen aldetik, eremu horietako instalazioek bete beharreko baldintzak kontuan hartuta.

3. Errepide guztietan, errepide bakoitzaren zorgunea non den adierazi beharko da errepideen alboetan dauden eremuetan, bai lur hiritarrean bai lur hiritarrezinean, ekainaren 25eko Arabako Errepideen 20/1990 Foru Arauaren arabera. Eremu hori libre gelditu behar da, inolako eraikinik gabe eta, planoetan adierazitako lerroen eta zorguneko fitxen eta kanpoko mugen arteko mugaketa murriztaileena hartuko da nagusitzat.

4. A-3120 errepideari dagokionez, Burgeluko saihesbidean eta A-132 errepidean, Ixonan, eta bi hirigune horietako lur hiritarrari dagokionez, eraikuntza lerro bat onartu da hurbileneko galtzadaren kanpoko ertzetik 25 metrora, aztertutako dokumentuan onartutako distantzien ordez.

Laugarrena.- Araudiko zenbait alderdi zehatzi dagokienez.

89. artikuluan eraikuntza lagungarria aipatzen da (kontzeptu berria da hori , Hiri Antolamenduko Arauetan azaltzen ez dena), baina hurrengo paragrafoan «osagarria» kontzeptu zaharra aipatzen da berriz. Beraz, bietako bat aukeratu behar da.

Lur hiritarraren hirigintza arauetan, «baimendutako erabilera xehekatuak eta horiek lokalizatzea» izeneko BLH-2 (Bizitegietarako Lur Hiritarra) zonan, hain zuzen, lagun egiteko animaliak azaltzen dira abeltzaintzarako erabileraren barruan. Hori ez dagokio idatz zati horri eta, beraz, araudi honetatik kanpo gelditu behar da.

Segidan, BLH-2 zonan, zaharrentzako bizitokien erabilera arautzen da. Bizitokitarako erabileren araubideari buruzko 80. artikuluaren arabera, erabilera hori «6.2. etxebizitza kolektiboa» nomenklaturaz adierazten da. Aipatutako ordenantzan, berriz, 1 motako etxebizitzak (familia bakarrekoa) eta 2 motako etxebizitzak (bi familiakoa) baino ez dira baimentzen. Beraz, puntu hori argitu beharra dago.

Lur hiritargarriaren unitateen fitxetan azaltzen den «paisaia-diseinua» kontzeptua zehaztu egin beharko da.

Bosgarrena.- Kalifikazio xehekatuari dagokionez.

Hiri Antolamenduko Arauek xehetasun osoz antolatu beharko dute hiritartzat izendatutako lurra, baldin eta barne berrikuntzako garapen plangintzari lotua ez bada. Horrelakoetan, aldaketarekin lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako erabilerak eta intentsitateak adierazi behar dira.

Espedienteak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua betetzen dela egiaztatu beharko du. Dekretu horren bidez, ingurune hiritarretan, espazio publikoetan, eraikuntzetan eta informazio eta komunikazio sistemetan bete beharreko irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira.

Lur hiritarraren antolamendu xehekatuaren kontzeptuaren baitan, hiritartze elementuek bete beharreko baldintzei buruzko arautegi berezia sartzen da, eta elementu horiek bete beharreko baldintza materialak eta geometrikoak azaldu behar dira (euste-hormak, gutxieneko bira-erradioak, irteerarik gabeko kaleak arautzea, eta abar).

Lur hiritargarriko zenbait sektoretan, eta zehazki Burgeluko BLHG-1 eta BLHG-2 (bizitegietarako lur hiritargarria) sektoreetan, Plangintzako Arautegian bizitokitarako garapen eremuetarako agindutakoak baino lur-lagapen handiagoak proposatzen dira. Espedienteak egiaztatu egin behar ditu asmo horiek, eta hirigintza lan hori egin daitekeela frogatu.

Seigarrena.- Lur hiritarren kudeaketari dagokionez, Arbuloko alboko 2 eta 4 jardun unitateek eremu bat —bakoitzak, banantzen dituen errepidearen erdia— hiritartu behar dutela egiaztatu da. Kalea egiteko modu hori ez da bidezkoa. Beraz, bi unitateak jardun unitate bakarrean batu behar dira.

Zazpigarrena.- Ekonomia eta finantzaketa estudioari dagokionez.

Lurraren Legeak berariaz ez agindu arren, Hiri Antolamenduko Arauek dagokien ekonomia eta finantzaketa estudioa jaso behar dute, Auzitegi Gorenaren 1992ko urtarrilaren 21eko ebazpenean horrela agintzen baita. Ebazpen horretan adierazten denez, agiri hori behar da baldin eta hiri antolamenduko arauek, zuzkiduretarako eta hiritartze lanak egiteko, eta horien bidez lan horien bideragarritasuna eta Udalak lan horiek aurrera eramateko duen gaitasuna bermatzearren, lurrak erostea xedatzen badute.

Horregatik guztiagatik, ditudan aginpideak erabiliz,

Dicha matización es de enorme importancia, dedas las características del ámbito en cuestión, así como los requisitos exigibles a las instalaciones situadas en el mismo desde el punto de vista de carreteras.

3. Tanto en Suelo Urbano, como en Suelo Urbanizable, y en relación con todas las carreteras, deberá representarse dentro de los distintos ámbitos colindantes con las mismas la zona de Servidumbre correspondiente a cada carretera, conforme a la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava, debiendo quedar libre de ocupación con cualquier tipo de edificación, prevaleciendo la limitación más restrictiva entre la línea indicada en los planos y las fichas y el límite exterior de la zona de servidumbre.

4. En relación con la carretera A-3120 en la Variante de Elburgo y la carretera A-132 a su paso por Hijona, se considera con respecto al suelo urbano de ambos núcleos una línea de edificación situada a 25 metros de la arista exterior de la calzada más próxima, en lugar de las distancias contempladas en el documento analizado.

Cuarto.- Sobre algunos aspectos puntuales de la Normativa.

En el artículo 89 se habla de edificación auxiliar (concepto nuevo sobre las antiguas NNSS), pero en el párrafo siguiente se vuelve al concepto antiguo de “complementarios”, por tanto se deberá corregir en uno u otro sentido.

En las normas urbanísticas del suelo urbano, concretamente en la zona SUR-2, “usos pormenorizados autorizados y localización de los mismos”, se menciona dentro del uso ganadero el tema de los animales de compañía, no siendo esto propio de este apartado, por tanto deberá desaparecer de la normativa.

Seguidamente, dentro también del SUR-2, se regula el uso de residencias para la Tercera Edad, uso que, según el artículo 80 (régimen de usos residenciales) se señala con la nomenclatura “6.2 vivienda colectiva”, cuando en la ordenanza mencionada solamente está permitidos el tipo 1 (unifamiliar) y el tipo 2 (bifamiliar), por tanto se deberá aclarar este punto.

Se deberá concretar el concepto “diseño paisajístico” que aparece dentro de las fichas de unidades del suelo urbanizable.

Quinto.- En relación con la calificación pormenorizada.

Es necesario que las NNSS ordenen pormenorizadamente el suelo clasificado como urbano siempre y cuando no se remita a planeamiento de desarrollo (Peri), debiendo en este caso aportar los objetivos que la reforme se propone y los usos e intensidades previstos.

El expediente deberá justificar el cumplimiento del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

Dentro del concepto. “ordenación” detallada del suelo urbano se hallaría englobada la regulación específica de las condiciones de los elementos de urbanización, debiendo hacer referencia a las condiciones materiales y geométricas de los distintos elementos (muros de contención, radios de giro mínimos, regulación de fondos de saco, etc..).

En ciertos sectores de suelo urbanizable, concretamente el SAUR-1 y el SAUR-2 DE Elburgo se plantean unas cesiones de suelo superiores a lo señalado en el Reglamento de Planeamiento para las áreas de desarrollo residenciales, siendo necesario que el expediente justifique esta pretensión y demuestre que la operación urbanística es factible.

Sexto.- Respecto a la gestión planteada en los suelos urbanos, se ha comprobado que las adyacentes unidades de ejecución 2 y 4 de Arbulo, deben urbanizar, cada una, la mitad del vial que las separa. Tal forma de ejecutar una calle no es procedente por lo que ambas unidades deberán unirse en una sola.

Séptimo.- En relación al estudio económico-financiero.

Aunque no esté expresamente exigido por la Ley del Suelo, las Normas Subsidiarias deben incorporar el pertinente estudio económico-financiero, según lo establecido en la Sentencia del Tribunal Supremo de 21 de enero de 1992, en la que se manifiesta la necesidad de tal documento cuando las Normas Subsidiarias prevean adquisiciones de suelo para dotaciones y la realización de obras de urbanización, en orden a garantizar su viabilidad y la capacidad del Ayuntamiento para llevar a cabo las realizaciones previstas.

En su virtud en ejercicio de las facultades que me competen,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Burgeluko Plangintzako Hiri Antolamenduko Arauak berrikusteko espedientea behin betiko onartzea, honako aldaketak sartuta:

I.- LUR HIRITARRAREN SAILKAPENARI DAGOKIONEZ.

Honako lur hauei lur hiritarraren izendapena kentzea: Añuako 6 jardun unitatean sartzen diren lurrei, Argomanizko 4 jardun unitatekoei (17. eta 19. lur sailak eta 174. lur sailaren zati bat) eta Ixonako 1 jardun unitatekoei. Lur horiek lur hiritargarritzat izenda daitezke baldin eta, teknikoki eta ekonomikoi, jardun horren autonomia egiaztatzeko adina funts badute.

II.- LUR HIRITARREZINARI DAGOKIONEZ

- PR zonari (ur-isurien eta bilguneen zona babestuak) buruzko idatz zatiaren idazkera aldatzea. Izan ere, proposatutako zatien segmentazioa eta ur-isurien identifikazioa ez datoz bat Burgeluko udalerria benetan zeharkatzen duten urtegiekin, ibaiekin, errekekin eta ur-isuriekin.

- Ustiapen jarduerak eragindako zonak, edo etorkizunean horretarako erabil daitezkeenak, mugatzea (edo emandako baimena berriz aztertu).

- Hiriko hondakin solidoen zabortegitarako lekurik egokiena mugatzea.

- Hiri Antolamenduko Arauak egokitzea Euskal Autonomia Erkidegoko mediterranear isurialdeko Ibaiertzak eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera, eta ur-isurien zona babestutzat kalifikatzea.

- 50 m-ko koroa Añuako ureztatze urmaelaren inguruan.

- 30 m-ko zerrenda, Arganzubi ibaiaren ertzetan, udalerriko ibilbidean (Burgeluko ekialdean).

III.- TOKI IREKIEN SISTEMA OROKORRARI DAGOKIONEZ.

- Toki irekien sistema orokorrerako eremua grafiatu behar da, biztanle bakoitzeko 5 m2-ko proportzioan, gutxienez.

IV.- BIDE KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRARI DAGOKIONEZ.

- Jabari eta erabilera publikoko lurrak okupatzen duen zerrenda bakarrik hartuko da bide komunikazioen sistema orokortzat.

- B-5 planoa zuzendu egin behar da. Horretarako, A-3110 errepidea (planoan A-3100 errepidea) behar bezala izendatu behar da. Era berean, A-3108 errepidearen izena aldatzea C-10 planoan, non N-3108 izena baituen.

- Z-8 izeneko zona behar bezala adierazi behar da, agirian azaltzen den aldioro.

- Errepide guztietan, errepide bakoitzaren zorgunea non den adierazi behar da errepideen alboetako eremuetan, bai lur hiritarrean bai lur hiritarrezinean. Eremu hori libre gelditu behar da, inolako eraikinik gabe, eta planoetan adierazitako lerroen eta zorguneko fitxen eta kanpoko mugen arteko mugaketa murriztaileena hartuko da nagusitzat.

- Burgeluko eta Ixonako lur hiritarrari dagokionez, galtzada hurbilenaren kanpoko ertzetik 25 metrora den eraikuntza lerroa hartu behar da kontuan, aztertutako agirian onartutako distantzien ordez.

- Araudiko 66. artikulua kendu egin behar da. Bestalde, eraikinetik errepidera gorde beharreko distantzia lerroaren barruan arautu behar da eraikuntzen egoera, bai eta gertatzen diren hirigintzako antolamenduz kanpoko egoerak argitu ere.

V.- KALIFIKAZIO XEHEKATUARI DAGOKIONEZ.

- Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua betetzen dela egiaztatu behar da. Dekretu horren bidez, ingurune hiritarretan, espazio publikoetan, eraikuntzetan eta informazio eta komunikazio sistemetan bete beharreko irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira.

- Hiritartzearen gutxieneko baldintzei buruzko araua aurkeztu behar da.

- Burgeluko BLHG-1 eta BLHG-2 sektoreetarako onartutako lurlagapenak gehitu egin direla egiaztatu behar da, betiere plangintzaren arautegian onartutako lagapen estandarrekin alderatuta. Egiaztapenak arrazoitua izan behar du. Bestalde, hirigintza lanaren bideragarritasuna ere frogatu beharra dago.

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Elburgo con las siguientes modificaciones:

I.- EN RELACIÓN CON LA CLASIFICACIÓN DE SUELO URBANO.

Desclasificar como suelo urbano los terrenos que se incluyen en las Unidades de Ejecución 6 de Añua, 4 de Argomaniz (parcelas número 17, 19 y parte de la 174) y 1 de Hijona, pudiendo clasificarse como suelo urbanizable siempre y cuando tengan la entidad suficiente para justificar técnica y económicamente la autonomía de la actuación.

II.- RESPECTO AL SUELO NO URBANIZABLE

- Corregir la redacción dada al apartado relativo a la zona P.R., de protección de los cursos y masas de agua, al no corresponderse la segmentación de tramas propuesta, ni su identificación por cursos, con los embalses, ríos, arroyos, y escorrentías que realmente atraviesan el término municipal de Elburgo.

- Delimitar las zonas afectadas por la actividad extractiva (o bien reconsiderar su permisividad), asi como las que en un futuro pudieran dedicarse a ésta.

- Delimitar el emplazamiento más idóneo para vertedero de residuos sólidos urbanos.

- Adaptar las NNSS al Plan Territorial Sectorial de ordenación de Márgenes de ríos y arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Mediterránea), calificando como zona de protección de los cursos de agua.

- Una corona de 50 m en torno a la balsa de riego de Añua.

- Una franja de 30 m. en las márgenes del río Arganzubi, en su recorrido por el término municipal (al Este de Elburgo).

III.- EN RELACIÓN CON EL SISTEMA GENERAL DEL ESPACIOS LIBRES.

- Grafiar un área destinada a Sistema General de Espacios Libres en la proporción mínima de 5 m2/habitante.

IV.- EN RELACIÓN CON EL SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES VIARIAS.

- Señalar como Sistema General de Comunicaciones Viarias exclusivamente la franja ocupada por el suelo de dominio y uso público.

- Corregir el plano B-5, debiendo designarse correctamente la carretera A-3110, que en dicho plano aparece como A-3100. Asimismo, deberá corregirse la denominación de la carretera A-3108 en el plano C-10, en el cual aparece como N-3108.

- Señalar correctamente la zona denominada Z-8 cada vez que se hace referencia a la misma a lo largo de todo el documento.

- Representar tanto en Suelo Urbano, como en Suelo Urbanizable, y en relación con todas las carreteras, dentro de los distintos ámbitos colindantes con las mismas la zona de Servidumbre correspondiente a cada carretera, debiendo quedar libre de ocupación con cualquier tipo de edificación, prevaleciendo la limitación más restrictiva entre la línea indicada en los planos y las fichas y el límite exterior de la zona de servidumbre.

- Considerar con respecto al suelo urbano de Elburgo e Hijona una línea de edificación situada a 25 metros de la arista exterior de la calzada más próxima, en lugar de las distancias contempladas en el documento analizado.

- Eliminar el artículo 66 de la normativa, regulando la situación de las construcciones dentro de la línea de la distancia de la edificación a las carreteras y aclarando las situaciones de fuera de ordenación urbanística que se produzcan.

V. EN RELACIÓN CON LA CALIFICACIÓN PORMENORIZADA.

- Justificar el cumplimiento del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

- Aportar una regulación de las condiciones mínimas de urbanización.

- Justificar razonadamente el aumento de las cesiones de suelo contempladas para el SAUR-1 y SAUR-2 de Elburgo, sobre los estándares regulados en el Reglamento de Planeamiento, demostrando la viabilidad de la operación urbanística.

VI.- ONDARE HISTORIKOA BABESTEARI DAGOKIONEZ

- Done Jakueren bideari lotutako elementuak «Arkitektura intereseko ondasun zerrendak» zerrendan sartu behar dira, «Higiezinak» izeneko 2. paragrafoan, dagokion idatz zatian, hain zuzen, hor aipatzen baitira Done Jakueren bideari lotutako elementuak. «Katalogoa» izenburua duen 207. artikuluan urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretua aipatuko da. Dekretu horretan kultura ondasuntzat izendatzen da Done Jakueren bidea, eta monumentu kategoria ematen zaio.

- «La Picota» zerrenda horretatik kanpo utziko da, eta «bestelako hiri elementuak» 3. paragrafora aldatuko.

- Kultura ondare inbentariatu gisa jaso behar da Burgeluko gune historikoko arkeologia zona eta mugak erabat egokitu behar dira izendatze horretara (I. eranskina), bai eta 7/90 Legeko 45.5 artikuluan ondasun horientzat onartutako babes zehatzera ere.

- Burgeluko ustezko arkeologia zonatzat izendatutako aztarnategiak eta arkeologia intereseko elementuak (II. eranskina) Hiri Antolamenduko Arauen dokumentuan sartu behar dira, 7/90 Legeko 49. artikuluak elementu horiei ematen dien babesarekin, eta bakoitzari dagozkion benetako mugak zein diren zehaztuta (II. eranskineko ebazpena, III. eranskineko planoak).

VII.- LUR HIRITARRA GAUZATZEARI DAGOKIONEZ.

- Arbuloko 2 eta 4 jardun unitateetako lurrak batu egin behar dira, unitate bakarra egiteko.

VIII.- EKONOMIA ETA FINANTZAKETA ESTUDIOARI DAGOKIONEZ.

- Dagokion ekonomia eta finantzaketa estudioa aurkeztu behar da, bideragarritasuna eta Udalak lurra eskuratzeko eta bestelako hiritartze lanak egiteko duen gaitasuna bermatu ahal izateko.

IX.- ARAUTEGIKO ALDERDI ZEHATZEI DAGOKIENEZ.

- 89. artikuluko «laguntzaile» eta «osagarri» kontzeptuak zuzendu egin behar dira.

- «Lagun egiteko animaliak» erabileraren erregulazioa kendu egin behar da abeltzaintza erabileratik.

- «Zahar etxeak» erabilera BLHG-2 erabileren araubidearen barruan sartu izana zuzendu egin behar da, Hiri Antolamenduko Arauen erabileraren araubide orokorrarekin koordinatuta.

- Lur hiritargarriari dagokionez, «paisaia diseinua» kontzeptua zehaztu egin behar da.

Bigarrena.- Lehen xedapeneko I. idatz zatian zehazten den aldaketa funtsezkoa da eta, ondorioz, jendaurrean jarri beharko da agiria prestatu baino lehen. Gero, agiri hori Arabako Foru Aldundiari igorriko zaio hori gauzatzeko erabakia har dezan, eta izapideak egin eta erabakia argitara dezan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Laugarrena.- Aurreko ebazpen hori behin betikoa da administrazio bidean, baina horren aurka interesdunak ondorengo errekurtsoren bat ezarri ahal du. Hala ere, interesdunak egoki deritzon beste edozein neurri har dezake bere interesak babesteko. Hona hemen ezar daitezkeen errekurtsoak:

a) Zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, errekurtso horren aurretik, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute ebazpena eman zuen organoan. Errekerimendua beste administrazio batzuek ere egin dezakete. Hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.»

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 28an.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA

.

VI.- RESPECTO A LA PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO

- Incluir en el listado denominado “Relación de Bienes de Interés arquitectónico”, los elementos afectos al camino de Santiago, incorporándolos al apartado correspondiente del párrafo 2. “Inmuebles”, que hace expresa referencia a los elementos afectos al camino. Se hará mención en el artículo 207 “Catálogo” al Decreto 14/2000 de 25 de enero por el que se califica como Bien Cultural con la categoría de monumento el Camino de Santiago.

- Excluir de dicho listado “La Picota”, trasladándolo al párrafo 3 “otros elementos urbanos”.

- Recoger la zona arqueológica del Casco Histórico de Elburgo, como bien cultural inventariado, modificando la delimitación hasta ajustarla a la declaración (Anexo I), así como ajustándose también a la protección exacta que la Ley 7/90 indica en el artículo 45.5 para estos bienes.

- Incluir los yacimiento y elementos de interés arqueológico declarados zonas de presunción arqueológica del municipio de Elburgo (Anexo II) deben ser incluidos en el documento de las Normas Subsidiarias, con la protección que les otorga el artículo 49 de la Ley 7/90, señalando las delimitaciones reales para cada uno de ellos (resolución del Anexo II, planos del Anexo III).

VII.- EN RELACIÓN A LA EJECUCIÓN DEL SUELO URBANO

- Agrupar los terrenos de las Unidades de Ejecución 2 y 4 de Arbulo a fin de formar una sola unidad.

VIII.- EN RELACIÓN AL ESTUDIO ECONÓMICO-FINANCIERO.

- Aportar el pertinente estudio económico-financiero, en orden a garantizar la viabilidad y la capacidad del Ayuntamiento para la adquisición de suelo y obras de urbanización previstas.

IX.- EN RELACIÓN CON ASPECTOS PUNTUALES DE LA NORMATIVA.

- Corregir el artículo 89, en cuando a los conceptos “auxiliar” y “complementario”.

- Eliminar la regulación del uso “animales de compañía” dentro del uso ganadero.

- Corregir la incardinación del uso “Residencias de la Tercera Edad” dentro del Régimen de Usos del SAUR-2 en coordinación con el régimen de usos general de las NNSS.

- Concretar y especificar el concepto “Diseño Paisajístico”, para el suelo urbanizable.

Segundo.- La modificación señalada en el apartado I del dispongo primero tiene carácter de sustancial, por lo que deberá someterse a información pública previamente a la elaboración del Documento que ha de ser elevado a esta Diputación Foral de Álava a fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a la diligenciación y publicación del mismo.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto .- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.”

Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2001.– El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.